


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



2025eko abuztuan, Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak gora egin du, eta **6.630 langabe zenbatu dira Donostian (2.7826 gizon eta 3.808 emakume)**, uztaillean baino **254 pertsona gehiago**.

- Langabezia **% 4 egin du gora uztailaren aldean**.
- Langabezia **% 3,6 egin du behera 2024ko abuztuaren aldean**.

Abuztuan, langabeen kopuruak, aurreko urteetan gertatu den bezala, gora egin du, bai gizonen artean, baita emakumeen artean ere. Gainera, uztailiko datuekin alderatuta, langabeziaren igoera handiagoa izan da emakumeen kasuan (%4,7 emakumeentzat eta %3,1 gizonentzat).

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, langabeen kopuruak behera egin du, % 3,6 (250 langabe gutxiago).

2024ko uztailarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonen langabeziak nabarmen jaitsiera handiagoa izan du emakumeena baino (% -4,6 gizonetan eta % -2,9 emakumeetan).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,3	8,0	9,8
Gizonen langabezia indizea	6,4	6,6	8,1
Emakumeen langabezia indizea	8,1	9,5	11,5
Genero arrakala	1,7	3,0	3,4

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea zertxobait hazi da, 7,3ra arte: 6,4 gizonen artean eta 8,1 emakumeen artean (ehuneko 1,7 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	8,0	-1,7
Donostia	7,3	-2,5
Bizkaia	10,6	0,8
Bilbo	12,2	2,4
Araba	10,7	0,9
Gasteiz	11,1	1,4

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAE langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.630	% 100	% 4,0
Gizonezkoak	2.827	% 43	% 3,1
Emakumezkoak	3.803	% 57	% 4,7
Gipuzkoa	29354	% 5,8	-% 1,8
EAE	109.169	% 4,0	-% 2,0

Uztailaren aldean, langabeen kopuruak gora egin du Gipuzkoan eta EAE ere (% 5,8 eta % 4 hurrenez hurren).

2024ko uztailarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEko langabeen kopuruak ere behera egin du (% -1,8 eta % -2hurrenez hurren)

Langabezia tasa EUSTATEN arabera (2025 2. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,3 abuztuan), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2025ko bigarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko bigarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	2,8	5,5	4,1
Donostia	3,4	4,5	3,9
Bizkaia	6,7	6,7	6,7
Bilbo	7,8	9,8	8,8
Araba	5,9	5,2	5,6
Gasteiz	5,9	5,2	5,5
EAE	5,3	6,1	5,7

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 65 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa eta unitate txikietan desglosatzean zehaztasuna galtzen du neurketak.


JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2025ko bigarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	59,3	53,9	56,5
Donostia	59,7	53,4	56,3
Bizkaia	59,8	51,2	55,3
Bilbo	60,7	50,8	55,4
Araba	63,5	52,3	57,7
Gasteiz	63,2	51,8	57,3
EAE	60,2	52,2	56,0

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2025ko bigarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,6	50,9	54,1
Donostia	57,6	51,0	54,1
Bizkaia	55,7	47,8	51,6
Bilbo	56,0	45,8	50,6
Araba	59,7	49,6	54,5
Gasteiz	59,5	49,1	54,1
EAE	57,0	49,1	52,9

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



2025eko abuztuaren 31ean, Donostiak honako hauek ditu:

- 55 urtetik gorako 2.285 langabe erregistratu dira Lanbiden (+14 uztailaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.520 langabe erregistratu dira Lanbiden (+35 uztailaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.247 langabe erregistratu dira Lanbiden (+99 uztailaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.152 langabetu erregistratu dira Lanbiden (+125 uztailaren aldean).
- 25 urtetik beherako 426 langabe erregistratu dira Lanbiden (-19 uztailaren aldean).

Langabeen kopuruak gora egin du adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoan adin-tartean izan ezik.

Nabarmenezkoa da 25-34 urteko adin-tartean langabeen kopuruak izan duen hazkundea, ekainean baino 125 langabe gehiago baitaude, eta horrek esan nahi du aldi horretan hazkunde absoluturik handiena izan duen taldea dela.

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	% 57,7	% 42,3	-15,5
25 eta 34 urte bitartekoak	% 42,9	% 57,1	14,2
35 eta 44 urte bitartekoak	% 37,9	% 62,1	24,3
45 eta 54 urte bitartekoak	% 42,6	% 57,4	14,7
55 urtetik gorakoak	% 42,3	% 57,7	15,4

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datu historikoez erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

Zehazki, abuztuko datuen arabera, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 24,3 puntukoa da (%26,3 ekainean eta %24 uztaillean).


Horren arrazoia izan daiteke adin tarte hori aitasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalki emakumei seme-alaben zaintza eta heziketa erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-erolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gaitzitzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena adin tarte guztietan.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorakoan adin-tartean) gizonen baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeen enplegua lortzea zailtzen duten oztopoak eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeen sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 17,1 puntu handiagoa da.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 40,6ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 22k unibertsitate-ikasketak ditu (uztailean baino ehuneko 2 puntu gehiago) (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**


PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%57,4	%52,8	%54,3
30 urtetik beherakoak	%23,8	%26,9	%25,6
Iraupen luzeko langabezia	%43,3	%43,3	%47,9
Atzeritarrak	%14,3	%18,7	%17,8
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%18,1	%17,3	%15,6
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%22,9	%16,4	%15,0
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%40,6	%48,4	%51,9

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- **Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.**
- **Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 18,1), Gipuzkoakoan erregistratutakoa (% 17,3) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa (% 15,6).**

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailiek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Abuztuan, Lanbiden erregistratutako emakume eta gizon langabeen kopuruak gora egin du. Gainera, aldi horretan bertan kontratu gutxiago sinatu dira eta uztailen baino pertsona gehiago kontratatu dira.

Beste behin, **emakumezkoen kontratazioa gizonezkoena baino handiagoa izan den arren, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdiak lanaldi partzialekoak dira** (% 52), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 35baino ez dira mota horretako kontratuak**.

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 13 emakume atzeritarrak ziren** (atzeritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,6 dira).

Abuztuan 6.337 kontratu sinatu dira, hau da, uztailen baino % 33,3 kontratu gutxiago (3.168 kontratu gutxiago).

2024ko abuztuaren aldean, 598 kontratu gutxiago sinatu dira, hau da, kontratazioak % 8,6 egin du behera.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	2.758	%43,5	3.579	%56,5	6.337
Aldi baterakoak	2.072	%42,5	2.802	%57,5	4.874
Mugagabeak	686	%46,9	777	%53,1	1.463
Lanaldi partziala	976	%34,2	1.877	%65,8	2.853
Lanaldi osoa	1.782	%51,1	1.702	%48,9	3.484

Kontratu horiekin 5.010 pertsona kontratatu dira, hau da, uztailen baino % 31,8 gutxiago (2.336 pertsona gutxiago).

2024ko abuztuaren aldean 243 pertsona gutxiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopuruak % 4,7 egin du behera.


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,3 kontratu sinatu ditu.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.192	%43,8	2.818	%56,2	5.010
Sinatutako kontratuen ratioa	1,3		1,3		1,3
24 urtetik beherakoak	770	%47,4	854	%52,6	1.624
25 eta 34 urte bitartekoak	592	%46,3	687	%53,7	1.279
35 eta 44 urte bitartekoak	357	%43,0	473	%57,0	830
45 eta 54 urte bitartekoak	297	%37,6	492	%62,4	789
54 urtetik gorakoak	176	%36,1	312	%63,9	488
Atzeritarrak	488	%42,9	650	%57,1	1.138

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino.
- Sinatutako kontratuen % 23,1 mugagabeak ziren (%22,8 maiatzean, % 23,4 ekainean eta % 27,6 abuztuan).
- Sinatutako kontratuen % 45 lanaldi murriztukoak dira (% 43,7 uztailen). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 66).
- Kontratuen % 657,9 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte (% 62,5 uztailen).
- Kontratuen % 25,5 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte (% 23,1 uztailen). Horietatik % 63 emakumeak dira (%65 uztailen).
- Kontratatutako pertsonen % 27 atzeritarrak ziren (% 20,7 uztailen). Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 57emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua zertxobait txikitu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 19,1** sinatu ditu (% 20,2 maiatzean, % 19,8 ekainean eta % 19,4 uztailen).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 34,8** sinatzen ditu (% 37,7 maiatzean, % 37,4 ekainean eta % 31,8 uztailen). Gainontzeko sektoreetan bezala kontratazioak nabarmenki behera egin duen arren, beste behin, **sektore horretan sinatu da kontratu mugagabeen bolumen handiena**, 509 kontratu mugagabe (833 uztailen).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 42,1 mugagabeak dira** (% 42,6 maiatzean, % 44,3 eta % 45,1 uztailen)
- Kontratazioaren **partzialtasuna hazi egin da ostalaritza sektorean**. Sinatutako kontratuen % 54,8 lanaldi partzialekoak dira (% 58,8 maiatzean, % 50,3 ekainean eta % 46,7 uztailen).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 14 sinatu ditu** (% 11,5 maiatzean, % 11,6 ekainean eta % 12,5 uztailen). Aurreko hilabeteen baino kontratu gutxiago sinatu arren, sektoreak kontratazioan duen pisua hazi da.
- Hiriko kontratu mugagabeen % 14,4** (% 15,3 maiatzean, % 13 ekainean eta % 12,5 uztailen) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 21,2** sinatu ditu (% 16,3 maiatzean, % 17,2 ekainean eta % 19,2 uztailen).
- Merkataritzan sinatutako kontratuen % 23,8 mugagabeak dira** (% 30,3 maiatzean, % 26,4 ekainean eta % 27,6 uztailen).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 66,8 lanaldi partzialekoak dira** (% 62,7 maiatzean, % 26,4 ekainean eta 66,8 % uztailen).

¹SEIC: SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (401 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (12 kontr.), higiezin-jarduerak (3 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.073 kontr.), administrazioa publikoa (17 kontr.), beste zerbitzu batzuk (71 kontr.) eta etxeetako jarduerak (194 kontr.).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	36 (%2,5)	%97,2	%2,8
Industria	25 (%1,7)	%56,0	%44,0
ostalaritza	509 (%34,8)	%57,4	%42,6
Merkataritza	211 (%14,4)	%35,1	%64,9
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	54 (%3,7)	%44,4	%55,6
Osasuna eta gizarte zerb.	85 (%5,8)	%23,5	%76,5
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	345 (%23,6)	%33,9	%66,1

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	5 (%0,2)	%60,0	%40,0
Industria	48 (%1,7)	%81,3	%18,8
ostalaritza	663 (%23,2)	%45,4	%54,6
Merkataritza	606 (%21,2)	%29,5	%70,5
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	58 (%2,0)	%27,6	%72,4
Osasuna eta gizarte zerb.	453 (%15,9)	%15,0	%85,0
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	837 (%29,3)	%34,8	%65,2

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,3 baino ez dira mugagabeak (2,7 uztailen).


Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmenki da batez ere; Industria eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 91,7, eta % 92,1 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, zerbitzu operatiboetan eta osasun sektorean. Gainera, azkenengo honetan, non kontratuen % 50,1 lanaldi partzialekoa den, mota honetako kontratuen % 85 emakumei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).

Emakumeek ez dute ia presentziarik industriak (%26) eta eraikuntzak (%7) eskaintutako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 68 eta osasun-sektoreko kontratuen % 73 emakumeen kolektiboarentzat dira.

DSBEaren hartzaileak

Abuztuan zehar **3.553 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (uztailean baino 2 pertsona gehiago).




Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 59,3 emakumeak dira**.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 47,8 dira**.
- DSBEa jasotzen dutenen % 21,6k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 30,3 goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EA Erekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,5	%1,0	%0,6
20 - 24 urte	%2,6	%2,7	%2,9
25 - 29 urte	%4,3	%5,2	%5,2
30 - 34 urte	%6,7	%7,6	%7,5
35 - 39 urte	%8,3	%9,5	%9,2
40 - 44 urte	%9,4	%10,5	%10,5
45 - 49 urte	%9,8	%11,4	%10,8
50 - 54 urte	%10,6	%11,2	%10,8
55 urtetik gora	%47,8	%40,8	%42,4
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,0	%60,8	%58,3
Batzilergoa	%8,4	%6,8	%6,8
Lanbide Heziketa	%22,3	%18,5	%20,8
Unibertsitatea	%8,0	%4,7	%5,0
Informaziorik gabe	%8,2	%9,2	%9,2
Lanaren osagarritasuna	%21,6	%20,5	%21,7
Oinarrizko DSBE modalitatea	%78,4	%79,5	%78,3
Gizonak	%41,8	%42,2	%41,8
Emakumeak	%59,3	%57,8	%58,2

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.400	145	%1,01
Altza	20.004	564	%2,82
Amara Berri	29.253	417	%1,43
Antiguo	13.729	136	%0,99
Añorga	2.695	29	%1,08
Ategorrieta-Ulía	3.923	69	%1,76
Centro	21.209	342	%1,61
Egia	14.216	357	%2,51
Gros	17.211	288	%1,67
Ibaeta	9.738	129	%1,32
Igeldo	1.081	6	%0,56
Intxaurrondo	15.426	502	%3,25
Loiola	6.057	176	%2,91
Martutene	2.654	81	%3,05
Miracruz-Bidebieta	8.616	289	%3,35
Miramón-Zorroaga	2.370	21	%0,89
Zubieta	292	1	%0,34